

PRENTSA-AURREKOA 2026/02/09. Martxoaren 3ko 50. urteurrena

1976ko martxoaren 3tik 50 urte betetzen dira, **Arabako hiriburuan poliziak hildako bost langileak eta Basaurin eta Tarragonan protesta egin eta poliziaren errepresioaren ondorioz hil ziren bi gazteak** oroitzeko eta omentzeko eguna.

Aurten, beste behin ere, **Martxoak 3 elkarteak eta ELA, LAB, ESK eta STEILAS sindikatuok** Estatuaren indarkeria pairatu zuten pertsona guztiak gogoratuko ditugu eta soldata eta baldintza duinen aldeko mobilizazio eta antolaketa kolektibo baten protagonista izan zen langile klasea, errepresio bortitz batek itota, balioan jarriko dugu. Emakumeen lana ere nabarmendu nahi dugu, greben arrazoiak gizarteratzen eta ondorioei ekonomikoki eusten lagundu baitzuten. Mende erdi geroago, **egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermeak** exijitzen jarraitzen dugu.

Gaur, 1976an bezala, langileriak justizia sozialaren alde eta sistema kapitalista guztiz bidegabearen aurkako borroka aldarrikatzen dugu: sistema horrek oinarritzko zerbitzuen pribatizazioa bultzatzen du, publikoa dena ahultzen du, eta onura ekonomikoa eskubide sozialen gainetik lehenesten duen ereduan, hain zuzen pertsonen eta planetaren esplotazioaren kontura aberastasuna esku gutxi batzuetan pilatzen jarraitzen duen eredu horretan sakontzen du. Horrek mundu osoko herri eta langile klaseei eragiten dien nazioarteko tentsio sakonek markatutako egoera batera garamatza. Euskal Herrian bortizkeria hauek salatzen ditugu eta gure elkartasuna adierazten diegu beren duintasunaren alde erresistitzen eta antolatzen diren herriei.

Palestinako genozidioa krudeltasun iraunkor eta sistematikoa da, Israeleko Estatuak herri oso baten aurka egindako sarraskia. Langileen, haurren eta erresistitzen dutenen aurkako Estatu indarkeria da. Okupazioa, apartheid-a eta garbiketa etnikoa gerra-krimenak dira, eta nazioarteko isiltasunak legitimatzen ditu. Era berean, Estatu Batuek Venezuelaren aurka egindako erasoak salatzen dugu; Venezuelako baliabide naturalak kontrolatu eta espoliatzeko helburu esplizitua duen operazio inperialista da.

Martxoak 3 hau, gainera, mobilizazio ziklo zabal eta beharrezko batean kokatzen da; horren baitan, martxoaren 8a izango da jarraipena, borroka feministaren eguna, beste urte batez kalera aterako **gara** sistema kapitalista, patriarkal eta kolonialak emakumeen bizitza nola prekarizatzen duen salatzeko, bereziki emakume arrazializatuena eta zisheteroarautik kanpo dauden pertsonena.

Martxoaren 17ko Greba Orokorrak bereziki markatutako martxoa dugu hau, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata propioa exijitzeko deitua, 1976an bezala, langile guztientzako gutxieneko soldata duinak eta aberastasunaren banaketa justuagoa exijitzeko. Orduan bezala, inork ez digu ezer oparituko; horrela, Hego Euskal Herriko gobernuek eta patronalek jarrera bateratua erakutsi dute, lan-prekarietate muturrekoena pairatzen duten pertsonen bizi-baldintzak hobetzearen kontra eta gutxi batzuen pribilegioen alde.

Eusko Jaurlaritzak bere aurpegiarik antidemokratikoena erakutsi du, ez baitu onartu eztabaidara LGS propio baten aldeko Herri Ekimen Legegilea, herritarren 140.000 sinadurek baino gehiagok babestua, bai eta Pentsiodunen Mugimenduak bultzatutakoa ere, gutxieneko pentsioak LGSarekin berdintzeko. Zortzi urte bete dira 1976ko langile borroketan protagonista izan zirenak pentsio duinak eskatzeko astelehenero kalera ateratzen hasi zirenetik.

Greba Orokor horretan langile klase osoaren **erosahalmenaren** galera salatu nahi dugu, bizitzaren garestitzearen igoeraren azpitik eguneratzen diren soldata, pentsio eta prestazio sozialak ezarrita. Desberdintasun sozialen igoera jasanezina eta soldata eta pentsioetan mantentzen diren arrakala matxista eta arrazistak salatu nahi ditugu, are mingarriagoa emakume pentsionista eta emakume arrazializatuentzat, askotan ezkutuko ekonomietan murgilduta bizitza sostengatuz eta atzeritartasun lege bidegabea sufrituz. Greba horrek argi eta garbi erantzuten dituen gai nagusiak dira guztiak.

Testuinguru horretan, Martxoak 3ko 50. urteurren honetan, **memoria historikoa** munduko txoko guztietako desberdintasunari, indarkeriari eta injustiziarri aurre egiteko tresna ere badela berresten dugu.

Aurreko guztiagatik, aurtengo leloa “**M3moria. Antolakuntza. Borroka**”. *M3moria* Egia, Justizia, Erreparazioa eta Ez Errepikatzeko bermeak exijitzeko. Indar kolektiboa eraikitzeko *Antolaketa*. Eskubideak konkistatzeko *Borroka*.

Martxoaren 3ko 50. urteurreneko egun horretarako ekitaldi bikoitza antolatzen ari gara, 50. urteurrenaren mailan egongo dena, eta oroimen kolektiboan mugarri izango dena, eraildako pertsonak eta une haietako borrokak gogoratzeko, bai eta urte hauetakoak ere, borrokaren beharra orainera eta etorkizunera proiektatzeko helburuarekin, gizarte justuago baterantz aurrera egiteko bide gisa. Horretarako, bi ekitaldi izango dira:

-Arratsaldeko 17:00etan, Martxoaren 3ko Monolitoaren ondoan hildakoen Omenaldia egingo da. 1976ko Batzarra Polizia Armatuak indarrez hautsi zuen ordu

berean. Omenaldi horretan presentzia berezia izango dute monolitoa eta bere plaka jarri zuten langile haiek, gaur egun haien kemenari esker existitzen dela gogorarazteko; izan ere, orain erakunde guztiek argazkia bertan ateratzen badute ere, behin eta berriz kendu zuten eta ondoren biktimek izan zuten ahaztura instituzional bera jasan zuen.

-18:30ean, beste hitzordu bat izango dugu Katedral Berriaren eta Andre Maria Zuriaren plazaren arteko espazioa hartuz. Katedralean 1976. urteko hiletak gogoratu nahi ditugu, eta herri mobilizazio handi batean Andra Mari Zuriaren Plazaraino joango gara. Bertan, ekitaldi nagusi handi bat egingo da, 50. urteurrena ospatzeko, eta Martxoak 3ekin konprometitutako artisten hainbat emanaldi izango ditugu. Beraz, bertan euskal gizarte osoak parte hartzeko deia egiten dugu, euskal langileriaren oroimenean grabatuta geratuko baita.

Argi utzi nahi dugu antolatzen ari garen Martxoaren 3ko oroitzapenezko ekitaldia espazio anitza, herrikoa eta belaunaldien artekoa izango dela, adin eta inguruabar guztietako pertsonen irekia, eta guztiok askatasunean parte hartzeko aukera izango dugula, aldarrikapenerako **espazio segurua** izanda.

Urteak daramatzagu elkar zaintzeko mekanismoak abian jartzen, errespetutik eta zaintza arauetatik abiatutako **espazio seguru bat** eraikitzeko, erantzukizun kolektibora joz; izan ere, 50. urteurren honetan, beste behin ere, parte-hartze masiboa, askea eta segurua izatea nahi dugu.

Alde horretatik, Ertzaintzari bermeak eta beharrezkoak diren barne-neurriak har ditzala parte-hartze aske, masibo eta indarkeriarik gabekoa ziurtatzeko eskatu diogu, eta beste urte batzuetako polizia-jarduerak ezin direla errepikatu argi adierazi diogu.

Amaitzeko, oroitzapenezko kamisetak eta izerditakoak eskaintzen jarraitzen dugula adierazi nahi dugu, Martxoaren 3ko memoria kolektiboa bizirik mantentzeko eta aurreikusitako ekitaldien antolakuntzari laguntzeko.



RUEDA DE PRENSA 09/02/2026. 50 Aniversario del 3 de Marzo.

Se cumplen **50 años del 3 de marzo de 1976**, un día para el **recuerdo y el homenaje a los cinco trabajadores asesinados por la policía en la capital alavesa y los dos jóvenes** que salieron a protestar y cayeron víctimas de la represión policial en **Basauri, y en Tarragona**. Este año, una vez más, **Martxoak 3 elkarte** – **Asociación Víctimas 3 de Marzo y los sindicatos ELA, LAB, ESK y STEILAS**, recordaremos a todas las personas que sufrieron la violencia del Estado y pondremos en valor a la clase trabajadora que protagonizó un proceso de movilización y organización colectiva por salarios y condiciones dignas, ahogado con brutal represión. Queremos poner en valor también la labor de todas esas mujeres que contribuyeron a socializar las razones y a sostener económicamente los efectos de las huelgas. Medio siglo después, seguimos exigiendo **verdad, justicia, reparación y garantías de no repetición**.

Hoy, como en 1976, reivindicamos la lucha de la clase trabajadora por la justicia social y contra un sistema capitalista profundamente injusto que impulsa la privatización de los servicios básicos, debilitando lo público y profundizando en un modelo que prioriza el beneficio económico frente a los derechos sociales y que sigue acumulando la riqueza en unas pocas manos a costa de la explotación de las personas y del planeta. Eso hace que estemos inmersos e inmersas en un escenario internacional marcado por profundas tensiones globales que afectan a pueblos y clases trabajadoras en todo el mundo, en Euskal Herria denunciamos estas violencias y expresamos nuestra solidaridad con los pueblos que resisten y se organizan por su dignidad.

El genocidio en Palestina es una crueldad sostenida y sistemática, una masacre de un pueblo entero a manos del Estado israelí. Es violencia de Estado contra trabajadores y trabajadoras, niños y niñas, contra quienes resisten. La ocupación, el apartheid y la limpieza étnica son crímenes de guerra, y el silencio internacional los legitima. También denunciamos la agresión perpetrada por Estados Unidos contra Venezuela, una operación imperialista con el objetivo explícito de controlar y expoliar los recursos naturales venezolanos.

Este 3 de Marzo se inscribe además en un ciclo de movilización amplio y necesario, que le seguirá el **8 de Marzo, jornada de lucha feminista**, que saldrá a la calle un año más para denunciar cómo el sistema capitalista, patriarcal y colonial precariza la vida de las mujeres y más aún la de las mujeres racializadas y personas disidentes de la cisheteronorma.

Un mes de Marzo especialmente marcado por la **Huelga general del 17 de marzo**, convocada para exigir un Salario Mínimo Interprofesional propio, para exigir, como en 1976, salarios mínimos dignos para todas las personas trabajadoras y un reparto más justo de la riqueza. Como entonces, nadie nos va a regalar nada, así, los Gobiernos y patronales de Hego Euskal Herria han demostrado su posicionamiento conjunto en defensa de los privilegios de unos pocos sobre la mejora de las condiciones de vida de las personas que sufren la precariedad laboral más extrema.

El Gobierno Vasco ha mostrado su cara más antidemocrática al no admitir a debate la Iniciativa Legislativa Popular por un SMI propio, respaldada por más de 140.000 firmas de la ciudadanía, así como la impulsada por el Movimiento Pensionista para que las pensiones mínimas sean iguales al SMI. Se cumplen 8 años desde que quienes protagonizaron las luchas obreras de 1976 salen cada lunes a las calles exigiendo pensiones dignas.

En esta Huelga general queremos denunciar la pérdida del poder adquisitivo de toda la clase trabajadora, con unos salarios, pensiones y prestaciones sociales que se actualizan por debajo del aumento de la carestía de la vida. Queremos denunciar el aumento insostenible de las desigualdades sociales y las brechas machistas y racistas que se mantiene en los salarios y las pensiones, más dolorosa aún para las mujeres pensionistas y las mujeres racializadas que a menudo sostienen la vida con economías sumergidas y sufriendo la injusta ley de extranjería. Todas son cuestiones centrales que esta huelga responde con claridad política.

En ese contexto, en este 50 aniversario del 3 de Marzo reafirmamos que **la memoria histórica** es también una herramienta de lucha para enfrentar la desigualdad, la violencia y la injusticia en todos los rincones del mundo.

Por todo lo anterior, este año el lema elegido es **“M3moria. Antolakuntza. Borroka”**. *M3moria* para exigir Verdad, Justicia, Reparación y garantías de No Repetición. *Organización* para construir fuerza colectiva. *Lucha* para conquistar derechos.

Para esta jornada del 50 aniversario del 3 de Marzo estamos organizando un doble acto que estará a la altura de este 50 aniversario, y que supondrá un hito en la memoria colectiva, para recordar a las personas asesinadas y las luchas de aquellos momentos, pero también las de todos estos años, con el objetivo de proyectar esa necesidad de lucha también hacia el presente y el futuro, como forma de avanzar hacia una sociedad más justa. Para ello, habrá dos eventos:

-A las 17h, tendrá lugar el Homenaje a los asesinados junto al Monolito del 3 de Marzo, justo a la hora en que tuvo lugar aquella Asamblea de 1976 que reventó la Policía Armada. En este homenaje tendrán una presencia especial aquellos trabajadores que pusieron el monolito y su placa, para recordar que hoy existe gracias a su tesón, ya que aunque ahora todas las instituciones se sacan la foto en él, fue repetidamente retirado y posteriormente sufrió el mismo olvido institucional que tuvieron las víctimas.

-Más tarde, a las 18:30h tendremos otra cita en la que ocuparemos el espacio entre la Catedral Nueva y la Plaza de la Virgen Blanca. En la Catedral queremos recordar los funerales de aquel 1976, **y marcharemos en una gran movilización popular hasta la Plaza de la Virgen Blanca** donde tendrá lugar un gran acto central con diferentes actuaciones de artistas comprometidas con Martxoak 3 para conmemorar este 50 aniversario. Por tanto, hacemos un llamamiento a que participe en el mismo toda la sociedad vasca, ya que quedará grabado en la memoria de la clase trabajadora vasca.

Queremos dejar claro que esta jornada conmemorativa del 3 de Marzo que estamos organizando será un espacio plural, popular e intergeneracional, abierto a personas de todas las edades y realidades, en el que todas y todos podamos participar en libertad y sea un **espacio seguro** de reivindicación.

Nosotras llevamos años activando mecanismos de cuidado mutuo para construir un **espacio seguro** desde el respeto y normas de cuidado apelando a la responsabilidad colectiva, porque queremos que, en este 50 aniversario, una vez mas, haya una participación masiva, libre y segura.

En ese sentido, hemos reclamado directamente a la Ertzaintza garantías y la adopción de las medidas internas necesarias de cara a asegurar esa participación libre, masiva y sin sufrir violencia, transmitiéndole que no pueden repetirse las actuaciones policiales de otros años.

Para terminar, queremos señalar que seguimos ofreciendo camisetas y sudaderas conmemorativas, como forma de mantener viva la memoria colectiva del 3 de Marzo y apoyar la organización de los actos previstos.

